

COC Concurso-oposición excepcional Cuerpos docentes 2022 COC Irakasleen kidegoetako aparteko oposizio-lehiaketa 2022	Parte B.1 / ámbito ESO / Bachillerato B.1 zatia / DBH/Batxilergoa
Resolución 244/2022, de 3 de noviembre / 244/2022 Ebazpena, azaroaren 3koa	

0590 - FRANCÉS / EUSKERA

0590 - FRANTSESA / EUSKARA

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
Alderdi orokorrak	5 ptos. / puntu
Unitate didaktikoa justifikatu da eta hari testuingurua eman zaio programazioan edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.	0,5 ptos. / puntu
Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.	0,5 ptos. / puntu
Izangaiak azalpen argia, ordenatua, arina eta koherentea egin du.	4 ptos. / puntu
Helburuak, edukiak eta metodologia	1,5 ptos. / puntu
Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira: ikaskuntza helburuak, konpetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak), oinarritzko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio irizpideak, ikaskuntza egoerak eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, irteera-profila.	0,5 ptos. / puntu
Zehaztu da zer-nolako lotura duten oinarritzko jakintzek konpetentzia funtsezkoak eta espezifikoak garatzeari begira, bai eta konpetentziek deskriptore operatiboekin duten lotura ere.	0,5 ptos. / puntu
Metodo pedagogikoak bat datoz ikasleen ezaugarriekin.	0,5 ptos. / puntu
Jarduerak	2 ptos. / puntu
Jarduerak motibagarriak dira eta zailtasun-maila bat baino gehiago dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarrietara egokitzeko. 1.-Ikaskuntza-egoerek honako hauek sustatzen dituzte: disziplina anitzeko izaera, proiektu bidezko ikaskuntza, arazo-egoerak, erronkak, sormena, autonomia, lankidetzeta eta ekintzailatza. 2.- Espazio- eta denbora-antolaketa, eta ikasleen taldekatzea. 3.-Zailtasunak eta HLBPAk dituzten ikasleentzako berariazko jardueren planifikazioa.	1 pto. / puntu
Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.	1 pto. / puntu

Ebaluazioa	1,5 ptos. / puntu
Ebaluazio irizpideak bat datoz helburuekin, konpetentziekin (funtsezkoak eta espezifikak), deskriptore operatiboekin, oinarrizko jakintzekin eta aplikatu beharreko metodo pedagogikoekin.	0,5 ptos. / puntu
Prozedurek, ebaluazio tresnek eta kalifikazio-irizpideek adierazten dute zer-nolako jardun-maila espero den ikasleen partetik, eta, DBHren kasuan, zer-nolako ekarpena egingen dioten ikasleen irteera-profilari. 1.-Prozedura eta tresna askotarikoak eta malguak: bat datoz ikasleen aniztasunarekin. 2.-Irizpideak eta deskriptore operatiboak: egokiak etengabeko ebaluaziorako, eta objektiboki neur daitezkeenak. 3.-Irteera-profilari egiten dion ekarpena, DBHren kasuan	0,5 ptos. / puntu
Helburuak lortu edo konpetentziak eskuratu ez dituzten ikasleei zuzendutako neurriak 1.-Ebaluaziorako, autoebaluaziorako eta etengabeko hobekuntzarako prozesuak eta tresnak. 2.-Emaitzak aztertzeko, ondorioak ateratzeko eta irakas-praktika hobetzeko proposamenak egiteko prozesuak eta tresnak	0,5 ptos. / puntu